

BALOREZKO PROPOSAMENA

Nori ez zaio gertatu goizean esnatzea eta gau txar bat pasa eta gero buruko mina izatea? Gainera denborarik ez duzunez lanera edo ikastera joan behar zara eta ez daukazu denborarik inoiz medikuarenera joateko eta azkenean gaixorik jartzen zara. Gaur egunean, denok betebeharrasko ditugu eta ez daukagu aukerarik denbora galtzeko. Gainera medikuarenera joatea erabakitzen duzunean, egun osoa galtzen duzu itxaroten.

Orain arte ez dugu izan erreztasunik arazo honi aurre egiteko. Kasu gehienetan “etxeko erremediak” ibuprofenoak (hau da, sendagai komodina) hartzera jotzen dugu. Hauek aldiz, ez dira oso errentagarriak, edo ez behintzat daukagun gaitza sendatzeko.

Gure aplikazioak ordea honek sorrarazten dizkigun arazoekin amaitzen du! Honek denbora galtzea ekiditzen digu, eskura dugun mediku bat eskeiniz, momentuko irtenbideak lortzen ditugu. Gainera adin guztiko pertsonentzat egina dago, baina batez ere lanean betebeharrasko dituenentzat.

Gure bezeroak gure aplikazioa aukeratzeko arrazoi nagusia kualitatiboa da. Haiei eskaintzen dizkiegu haien eskuragarritasuna erraztekoa bidea.

Laburbilduz gure helburu nagusia pertsonen bizitza erraztea. Alde batetik gaixorik dagoen jendea edo zailtasunak dituen jendea eta beste alde batetik osasun publikoa (osakidetza).



